hiruka

199. zenbakia
2023ko urria

TURISMOA URIBE KOSTAN

Nondik eta nora doa turista?

MUXIKEBARRI

6 OR./VI. - 19:30 - **8€**
ZEOZERTAN DABIL BAINA EZ DAKIT ZERTAN *(Eusk)*
Metrokoadroka kolektiboa

7 LR./SÁ. - 20:00 - **12€**
NEVENKA *(Cast)*
Histrión Teatro

8 IG./DO. - 19:00 - **10€**
ABUNDANCE
Cia. Osa+Mujika
(Dantza · danza)

12 OG./JU. - 19:00 - **5€**
SUEÑO DE UNA NOCHE DE VERANO *(Cast)*
Cia. Joven de Utopian

13 OR./VI. - 19:30 - **8€**
HONDAMENDIA *(Eusk)*
Axut! eta Artedrama

14 LR./SÁ. - 20:00 - **12€**
SI TÚ TE VAS *(Cast)*
Cia. Pepa Plana
(Zirkua · circo)

15 IG./DO. - 18:00 - **6€**
ANDEREÑO *(Eusk)*
Anita Maravillas
(haurrak · infantil)

20 OR./VI. - 20:00 - **10€**
ZARRA
Adriana Bilbao
(Dantza · danza)

21 LR./SÁ. - 20:00 - **20€**
PANDATARIA *(Cast)*
Losdedae Compañía de Danza

22 IG./DO. - 16'30 y 19'00 - **6€**
URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI! *(Eusk)*
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
(haurrak · infantil)

Getxo Eszena 2023

Urriak 6-22 Octubre

Antolatzaileak | Organizadores

Getxo bizi ezazu

Getxo Kultur Etxea bizi ezazu

Babesleak | Patrocinadores

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

El Correo

Sarreren salmenta: Venta de entradas: www.kutxabank.es

Orotarako kutxazainak Cajeros multiservicio

SARRERAK/ENTRADAS
Muxikebarri
Romo Kultur Etxea
Kutxabank sarea/Red Kutxabank

www.getxo.eus

Aurkibidea

4 Puntua eta kontrapuntua

5 Erretratua

6 Turismoa Uribe Kostan, erradiografia txiki bat

10 Herriz herri

20 Hirudika: scooter klasikoen bira

24 Berbetan: Itxaso Paya, kultur sortzailea

28 Agenda

30 Lehen/orain eta Uribitakora

31 Musikhariak: Lazka

32 Busterri herri-antzerki taldea

33 Maite Garcia, umeek euskara gehiago erabiltzeko helduon rolaz

34 Iritziak eta Horoskopoa

35 Usategi

36 Kirolak

37 Alain Arteagabeitia, kickboxing inklusiboan aritzen den borrokalaria

38 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak

40 Faceguk

42 Aitormenak: Mikel Losada

43 Zozketak

5

«Euskal munduko abadeen bokazioa galduta dago»

6

Azken urteetan baino turista gehiagok igaro dute uda Uribe Kostan

24

«Emakume sortzaileak beti egon arren, luzaro mutuarazita egon dira»

32

A. Umaran eta M. Moreno, Busterriko kideak

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Iker Torre Navarro, Aroa Sotelo eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Armando Llamosas, Nahikari Ayo, Asier Barruetabeña Rivallo, Jondalar Sota, SOS Kurkudi eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi ezazu

Leioa Idala-Ayuntamiento Euskara Zerbitzua

Berangoko Udala

Barrikako Udala

Gorlizko Udala

Urdulizko Udala

Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Punta Begoña berriro

ARMANDO LLAMOSAS Ondarearen teknikaria

Mende hasieratik, Punta Begoñari buruz hamaika aldiz idatzi dugu. Ilusioa, zalantzak, ezkortasuna, poza... Egoera emozional guztietatik pasatu gara, beti, sinestegabekeriaz bustita. Egun, Punta Begoñak itsasadarrarekin izan duen lotura gogoratzen duen erakusketa egin digute: botea, Bizkaia Zubia, angulak, hondartza, ontziak... Galdu den mundu oso bat. Aipatzekoa da argazki zaharren bilduma, horietako asko, gainera, ezezagunak. Proiektatzen den dokumentala ere deigarria da, 1925ekoa. Film polita eta harribitxia. Konparatuz, ezin da esan gure ingurua denik. Nola aldatu den gure lurra!

Merezi duela argi dago, eta ondo legoke Udaleko beste lekuetara ere eramatea. Hala ere, onena Punta Begoña bizirik dirauela da. Zaharberritzeko lanak badoaz; astiro, astiroegi agian, baina badoaz. Erabilpen motela eta xumea du, planifikaziorik gabekoa, baina eraldatzen doa... Aurrerapauso txikiak ikusten dira: fundazioaren lana, kolaborazioak, webgune polita, zabalkuntza. Astiro, baina badoa.

Eraikina miraria dela ezin da ukatu; lana eta ekimen onak egiten ari direla ezta ere. Hala ere, gerorako indefinizioa beti dago hor; hurbiltzen den jende askok galdetzen du: «Zer egingo da hemen?».

Goenkale

NAHIKARI AYO ACEBO Irakaslea

Antzinakoa beti bueltatzen da, hori esaten du gure amak. Irakurle, 'Goenkale' itzuli da! Maria Luisa, *Txapas*, Joxe Mari, Don Luis, Margari eta konpainia bueltan daude. ETB1en ikusgai daukazue «Biba zuek!« saioa baino lehen.

Amona kritikatzen nuen telenobelak ikusten zituelako, eta gero ni engantxatu nintzen 'Goenkale'-ra. Oso euskalduna, baina euskal telenobela, ukatu arren.

Ikastolan geundela, OHOko 6. edo 7. mailan, maisuak etxerako lan modura jartzen zigun astean behineko kapitulu hori ikustea. Hurrengo egunean, gelan komentatzen genuen. Orain gauza arrunta ematen du, baina nork esango zigun telesail bat euskaraz gelan komentatuko genuenik? Garai hartan, 'Dragoi Bola' zen euskaraz erakargarri egiten zitzaigun bakarra.

«Hori egina zagon!», «Mingaina txulora!» bezalako esaldiak ikasi genituen, eta gure bizitzan Hika agertu zen –ikastolan aditz taulan ezabatzen genuena–. Kaleko euskara edota euskara erakargarri bat ezagutu genuen: biraoak, esamoldeak...

Gaur egun, ETBk ez du euskarazko fikzioaren aldeko apusturik egiten. 'Goenkale', 'Bi eta Bat' eta 'Jaun eta jabe' bezalako telesailek zuten arrakasta, ez dugu berriro ezagutu. Noizko euskarazko fikzio duina?

Puntua eta kontrapuntua **Turismoa Uribe Kostan**

Turistak eta turistak

Kenya, Bangkok, Berlin
Brasil, Buenos Aires...
Furgonetan, barkuan
edo hegazkinez;
bidaian joaten gara
atseden beharrez.
Gero kexatzen gara
datozen turistez!
Oporrak gura doguz
baina turistak ez!

PERU DE PEDRO LARREA
Gorliz

Mundua ezagutu
nahian aldez alde
ze turismo eredu
ze turista talde
bidaiatzean egin
bertakoei galde
jende guztia doan
lekura joan gabe
turista izateko
modu asko daude.

IMANOL URIA ALBIZURI
Algorta/Getxo

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Felix Larrondo Aresti Abadea

«Bizkaian, euskal munduko abadeen bokazioa galduta dago»

Erandiogoikoko abadea eta eskualdeko bikarioa da Felix Larrondo. Dioenez, Elizbarrutia udalerrietan eragile aktiboa izaten jarraitzeko ahaleginetan ari da.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** • ARGAZKIA: **IKER TORRE NAVARRO** ▶

Erandiogoikoan jaioa, Berangon bizi da gaur egun Felix Larrondo abadea. Aurten, hirugarrenez izendatu dute Bizkaiko Elizbarrutiko seigarren bikariotzako lurralde-bikario, eta bere lanaz galdetuta, berak honela laburbildu du: «Bost urtetik behin berritzen den kargua da, eta, Elizbarrutiko proiektuak eskualdean aurrera eramateaz gain, hemen bizi duguna gotzaindegira eroatea da nire ardura; hemen egiten dena koordinatzea eta jendea mugiaraztea, hain zuzen».

Larrondok Txorierriko udalerrietako elizetan egiten ditu bere abade-lanak, tartean Erandiogoikoko Andra Mari elizan. Azaldu duenez, oso gustura sentitzen da bertan: «Jendeak ezagutzen nau eta hartu-eman ona daukagu».

Deitoratu du gaur egun Elizak arazoak dituela gazteakaz konektatzeko eta abadeen eta boluntario laikoen belaunaldi-erreleboa bermatzeko: «Gero eta abade gutxiago gaude, eta gehienok zaharrak gara. Ospakizunetarako laikoen laguntza dugu, eta ezkontzak eta hileta-elizkizunak bezalakoak guk egiten ditugu. Momentuz, konpontzen gara, baina, agian, etorkizunean planteatu beharko da ezin ditugula ospakizunak egunero egin». Gaineratu du abadetzen direnak hirigunetik datozela gehienbat, beraz, herri txiki eta inguru euskaldunetako abadeak lortzea da gehien kostatzen zaiena; izan ere, eskualdearen arabera, ospakizunak eta katekesia bezalakoak gazteleraz edo euskaraz egiteko eskatzen diete, «Getxon edo Erandion ospakizunak gazteleraz egiten ditugu, baina Txorierrin edo Mungialdean bizkaieraz, edo batuan ere egiteko eskatzen digute».

Arazoak arazo, Larrondok adierazi du Elizbarrutia berritzeko eta belaunaldi berriak erakartzeko ahaleginetan dabilela. Gainera, udalerrietan eragile aktiboa izaten jarraitu gura duela eta hainbat urtez emakumeek egindako lana ere aitortzen hasi direla ere azpimarratu du. ◀

Uribe Kostako turismoaren erradiografia; nondik eta nora?

Pandemiaren aurreko 2019ko zenbakiak gaindituta, inoiz baino turista gehiago etorri da Uribe Kostara aurtengo udan. Guztira, % 8,59 bidaiari gehiagok igaro dute gauren bat eskualdean, eta gorakada nabarmenena atzerritarren artean nabari izan da, % 35,56koa; gehienak frantsesak eta alemaniarrak izan dira.

TESTUAK ETA INFOGRAFIAK: **IKER RINCON MORENO**

Pandemiak eragindako atzeraldiaren ostean, turismoaren industriak inoiz baino indartsuago aurre egin dio 2023 honi eta, besteak beste, Uribe Kosta Euskal Herriko kostaldeko helmuga gisa kokatu da. Aurten, aurrekoetan baino bidaiari gehiago heldu da Getxoko gurutzaontzien terminalera –Bilboko Portu Agintaritzak 80 itsasontzi aurreikusi ditu, inoiz baino gehiago–, eta Loiuko aireportuak marka guztiak hautsi ditu udan, uztailean batez ere. Hilabete horretako turismodatuek erakusten dutenez –INE Espainiako Estatistika Institutuak hilabete horretara artekoak eman ditu soilik oraindino–, pandemiaren aurreko 2019. urtearekiko % 8,59ko gorakada zenbatu da eskualdean gauren bat eman duten turisten kopuruan, eta hori gure kaleetan nabari izan da uda honetan. Izan ere, hazkunde horren zati handi bat nazioarteko turismoari egotzi zaio, % 35,56ko igoera nabarmena izan baitu, Espainiako Estatutik edo Hego Euskal Herritik etorritakoen % 1,42ko hazkundearen aurrean.

8.413
atzerritik

23.674
Hego Euskal Herritik eta Espainiako Estatutik

32.087
turista
2023ko uztailean

Datuak: INE Espainiako Estatistika Institutua, uztaileko neurketa



NORA?



JATORRI JENDETSUENA

1	Madril	3.804
2	Gasteiz	752
3	Alemania	707
1	Madril	699
2	Castro-Urdiales	182
3	Frantzia	175
1	Frantzia	294
2	Castro-Urdiales	280
3	Madril	259
1	Castro-Urdiales	574
2	Madril	371
3	Gasteiz	340
1	Madril	396
2	Gasteiz	230
3	Castro-Urdiales	189
1	Madril	158
2	Alemania	142
3	Castro-Urdiales	93
1	Castro-Urdiales	489
2	Madril	85
3	Gasteiz	71
1	Madril	138
2	Gasteiz	77
3	Frantzia	66
1	Castro-Urdiales	172
2	Gasteiz	167
3	Madril	71
1	Madril	182
2	Frantzia	68
3	Donostia	67

NONDIK DATOZ ATZERRIKO TURISTAK?



OHARRA: Zazpi herrialde jendetsuenak ageri dira hemen.

ZENBAT OSTATU DAGO URIBE KOSTAN?

Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera (2023/10/02)



* Berangoko Udalak 11 apartamentu ditu identifikatuta

NONDIK GOAZ?



Uribe Kosta helmuga gisa aukeratu duten atzerriko bisitarien artean, Frantziako eta Alemaniako turistak nabarmendu dira; bestalde, Espainiako Estatutik eta Hego Euskal Herritik etorritakoek ere garrantzia izan dute Uribe Kostako turismoaren gorakadan. Mota horretako bisitari nagusiak inguruko eskualdeetakoak izan dira, hala nola kantabriarrak, arabarrak, gipuzkoarrak eta Burgosetik etorritakoak; dena dela, aipagarria da madrildarrak izan direla nagusi gurean, zehazki, Getxon.

Ostatuei dagokienez, Uribe Kostan askotariko eskaintza dago eta, Eusko Jaurlaritzak identifikatuta dituen leku turistikoen arabera, Gorliz eta Sopelako kanpinak dira leku gehien eskaintzen dutenak, guztizkoaren erdia. Hala ere, aipagarriak dira baita ere Gorlizen eta Plentzian egon ohi diren «urtaroko apartamentuak», udarako alokatzen dituztenak, hain zuzen. Ostatu horien eta besteen eraginez, udalerri bi horietako biztanleria behin-behinean puztu egiten da, % 36,5 eta % 13,4 aurtengo uztaileko datuen arabera, hurrenez hurren.

% 50,9

ostaturako aukera zabala dago eskualdean, baina, denen artean, ostatu-plaza gehien eskaintzen dutenak Gorlizko eta Sopelako kanpinak dira.

% 46,8

Uribe Kostara etorritako turisten artean, ia erdiak Getxon eman dute gauren bat edo beste uztailean.

Hala ere, Uribe Kostako udalerririk jendetsuena Getxo da, baita turista gehien hartzen duena ere. Guztira, 15.022 bidaiarik eman dute gauren bat bertan, hau da, ia erdia, % 46,8. Gainontzeko helmugen artean, herriaren tamaina kontutan hartuta, nabarmena da ere Barrikak jasotako 1.003 turistak, besteak beste.

URIBE KOSTAKOAK ERE, BIDAIARI. Udaldia errutinari aurre egiteko tartea da, kanpoko zein bertokoentzat eta, hori horrela, gurean ere kanpora joateko aukera izan dute uribekostarrek. Orokorrean, ondoko eskualdeetara joan dira gure ingurukoak, hala nola Kantabria eta Burgosera, zehazki, Castro-Urdialesera eta Medina de Pomarrera, hurrenez hurren. Hala ere, atzerrira joatea erabaki dutenak ere badira eta, horien artean, Frantzia, Portugal eta Italia izan dituzte helmuga nagusi, besteak beste.

NORA GOAZ?



URIBE KOSTAKO TURISTAK NORA?

HELMUGA JENDETSUENAK*

1	Castro-Urdiales	4.097
2	Noja	3.469
3	Laredo	2416
1	Frantzia	4.786
2	Portugal	1.647
3	Italia	1.583
1	Medina de Pomar	1.215
2	Villarcayo	1.167
3	Mena Harana	450
1	Madril	4.418
2	Torrejon de Ardoz	137
3	San Seb. de los Reyes	86
1	Ezcaray	562
2	Haro	434
3	Logroño	373
1	Gasteiz	1.003
2	Gaubea	262
3	Laudio	192
1	Donostia	1.057
2	Zarautz	374
3	Hondarribia	183
1	Ciutadella	521
2	Es Mercadal	210
3	Santa Eularia des Riu	176
1	Iruñea	1.403
2	Tutera	184
3	Izaba	75
1	Conil de la Frontera	447
2	Chiclana de la Frontera	382
3	Rota	155

* Probintziaren arabera

Getxo Iraileko osoko bilkura

Getxo tenkatutako eremu deklaratzea onartu dute

Alokairuaren prezioa oso altu duten guneetan deklaratzea onartu dute udal-ordezkariek, etxebizitzen tokiko eskaintza merkeago egingo duten politikak gauzatzeko asmoz.

Udalerriko etxebizitzen alokairuen prezioak Espainiako Estatuko garestienetakoak dira.

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek proposatuta, etxebizitzen alokairuaren prezioa oso altu duten guneak tentsio handiko bizitegi-eremu deklaratzea onartu zuten udal-ordezkariek iraileko osoko bilkuran, etxebizitzen tokiko eskaintza merkeago egingo duten politika bereziak gauzatzeko asmoz. Udal-alderdi guztiek alde bozkatu zuten, PP izan ezik, kontra egin baitzuen.

Mozioan onetsitako testuak planteatzen du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailagaz lankidetzan aritzeko ereduaren aldeko apustua mantentzea, alokairuko etxebizitza publikoa eta birgaikuntza sustatzeko; bere eskumeneko neurriak ezartzea, Biziguneren bidez etxebizitza hutsak alokairuan jartzea sustatzeko; eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari eskatzea tentsio handiko bizitegi-eremuak deklaratzeko udalerrian lege horretako baldintzak betetzen dituzten eremuak, aurretiaz azterketa egin ondoren.

SILVIARI ELKARTASUNA. Gainera, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdien aldeko botoakaz, ontzat eman zuten bi taldeek aurkeztutako beste mozio bat, zeinaren bidez eskatu zuten Udalak gaitzetsi dezala emakume migratzailea eta Getxoko herritarra den Silviaren aurka Ertzaintzak izandako jarduketa: «Atxilotu zuten eta udalerri honetako polizia-etxera eraman zuten, eta auto judizialean neurrigabekotzat eta gehiegizkotzat jo da polizia-jarduketa».

EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren eta PP kontra agertu zen bozketan. Mozioak, besteak beste, planteatzen zuen Getxo torturaren eta polizia-jarduketa arrazisten aurkako udalerri izendatzea, Udalak elkartasuna adierazteа aipatutako herritarrari, beraren aurkako prozesu judiziala etetea eta akordioa Eusko Legebiltzarrera, Lehendakaritzara eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera bidaltzea, besteak beste. Osoko bilkuraren egunean, Silviari elkartasuna adierazteko eta kasua salatzeko elkarretaratzea egin zuten udaletxean. ◂

Areetako aparkalekua

Udal-gobernua legegintzaldi honetan hasiko da aztertzen Itzubaltzeta/Romo-Areetan aparkaleku gehiago jartzeko proposamena, Mesedeetako kalean dagoen aparkalekua handitzeari buruzkoa.

Leioa Elkarrizketa-taldeak

Euskararen erabilera sustatzeko 10. Berbaldun programa abiatu dute

Leioako Udalak euskararen erabilera sustatzeko «Berbaldun euskaraz egin dezagun» izeneko programaren 10. edizioa abiatu du. Ekimen honek leioaztarrek euren artean euskaraz hitz egiteko aukerak eman gura ditu, hizkuntza ohitura berriak sortuz. Berbaldun egitasmoan parte hartu dezake euskaraz dakien edo komunikatzeko gutxieneko maila duen 16 urtetik gorako edozein pertsonak, euskaldun zaharrak edo B1 maila edo altuagoetan daudenak. Pertsona batek dinamizatutako elkarrizketa-taldeetan oinarritzen da programa, eta talde horiek gutxienez astean ordubetez bilduko dira; goizez, 09:00etatik 15:00etara, edo arrastiz, 15:00etatik 21:00etara, parte-hartzaileen eskaeren arabera.

Elkarrizketa-taldeez gain, Berbaldun ekimena beste elkarte eta erakunde batzuek antolatutako bestelako jarduera puntual batzuekaz ere osatzen da: Berbodromoa, txangoak, hitzaldia, antzezlanak... ◂

Izen-ematea

Parte hartzeko beharrezkoa izango da fitxa bat betetzea eta Mastitxu Udal Euskaltegian edo Lamia AEK Euskaltegian entregatzea, berbaldun.leioa@gmail.com helbidera idaztea edo 688 850 129 telefonora whatsapp bat bidaltzea.

Aurresku txapelketak Leioan

Aurreko irailaren 17an, Ondizen, Gorka Granado sopeloztarrak eta Lierni Pau Duce berangoztarrak irabazi zituzten Bizkaiko LXI. Aurresku eta Emakumezkoen XIV. Aurresku txapelketak, hurrenez hurren. LEIOAKO UDALA

Leioa 5.200 bonu baino gehiago

Daborduko eskuragarri daude Leioa Indartu Bonu berriak

Leioako Udalak Leioa Indartu Bonua 2023 ekimenaren laugarren edizioa jarri du martxan, herriko merkataritzari babesa eta dinamizazioa emateko helburuagaz. Urriaren 2tik aurrera, udal-webgunearen bitartez eskuratu daitezke 20+10 edo 10+5 modalitateetako bonuak. Horien bitartez, 20 edo 10 euroko erosketak ordaintzean, bonuen balioa 30 eta 15 eurokoa izango da, hurrenez hurren.

Leioako Udalak 100.000 euroko aurrekontua bideratu du Leioa Indartu Bonua ekimenerako, eta udalerrian guztizko eragin ekonomikoa 300.000 eurokoa izango dela aurreikusi dute udal-iturriek. ◂

Erandio Merkatarien elkartea

«Saltokirik gabe, herria abandonatua dagoela dirudi»

Berriztutako Erandioko Merkatari Elkartuen zuzendaritzako kideek herriko negozioak eta auzoetako bizitza berpizteko helburua hartu dute.

Merkatarien elkarteko kideak sanjoanetako ospakizunean. EME

Jendea Internet bidez erostera eta dena etxean jasotzera ohitu dela deitoratu du Diego Etxebarria Erandioko Merkatari Elkartuak elkarteko ordezkariak. «Auzoko negozioak desagertzen ari dira eta lotsa ematen du herria aste-akabuetan zein hutsik geratzen ari den ikusteak», dio tamalez.

Horri buelta emateko, elkarteko zuzendaritza berritu dutela kontatu eta hainbat aldaketa eta ekintza egiteko asmoa dutela iragarri du. Hasteko, sare sozialetan elkartearen presentzia areagotzeko Altzagako merkatariak elkarrizketatzen hasi dira: «Beraiek aurkezteko elkarrizketak sare sozialen bitartez partekatzen ari gara. Gure helburua da jende gaztearengana heltzea, horregatik TikToken edo Instagramen partekatzen ditugu». Etxebarriaren ustez, gazteak dira auzoko negozioetatik urrunen daudenak, «horregatik, beraiek erakartzeko ahalegina egin behar dugu».

Zentzu horretan, hainbat ekimen antolatzeko asmoa dute: Arimen Gaua ospatuko dute; azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, kanpaina bat egingo dute; aurreko urteko Gabonetan Abendu Egutegi bat egin zuten eta 24 egunez ekintzak antolatu zituzten, eta aurten ere errepikatzeko asmoa dute; gainera, elkartearen logotipoa berritzeko lehiaketa ere hasi dute. Halaber, urtean 4.000 euro baino gehiago banatzen dituzte sarietan Caja Rural banketxeagaz duten hitzarmen bati esker, eta 100 euroko balioa duten opari-txartelak ere zozkatzen dituzte urtean zehar.

> **«Orain ez da lehen bezala, atea ixten duten negozioak ez dira berriz ere zabaltzen, ez dago erretiratzen direnak ordezkatzeko belaunaldi-aldaketarik»**
> **DIEGO ETXEBARRIA**
> ERANDIOKO MERKATARI ELKARTUAK

Gaur egun, 74 kide dira, baina beraien helburua 80 merkatarira heltzea dela azpimarratu du Etxebarriak: «Elkartean sartuta ez dauden auzoko merkatariak ekintza horiek guztiak ikustean beraiek ere bertan sartzera animatu gura ditugu, elkarregaz herria dinamizatzea lortzeko». ◂

Plentzia Urbanizazio-proiektua

Plentziako Udalak Txipioko bidegurutzea egokituko du

Biribilgune bat egin eta aparkalekua hedatzeko asmoa azaldu du Plentziako Udalak, bidegurutze horretako segurtasuna hobetzeko, besteak beste.

Metro-geltokia, zubia eta BI-2122 errepidearen arteko Txipioko bidegurutzea egokitzeko proiektuan, egungo aparkalekua hedatu, inguru horretako urbanizazioa eta autobus-geralekuak doitu eta Txipio auzora sarbidea hobetzeko asmoa azaldu Udalak. Halaber, neurri zuzentzaileak hartzeko, hainbat harrapaketa eta autoen arteko istripuak pilatzen dituen puntu horretako segurtasuna hobetzeko ikerketa egingo dute baita ere.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA.

Plentziako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualean sartutako trazaduran oinarritzen da egitasmoa. Oro har, proposamenak aurreikusten du 85 plaza inguru izango dituen disuasio-aparkalekua metro-geltoki ondora mugitzea eta 14 metroko diametroa duen biribilgune bat eraikitzea gaur egungo bidegurutzea baino lehen.

Behin egitasmoari eta ingurumen inpaktuaren azterketari buruzko informazioa BAOn argitaratuta, administrazio publikoek eta pertsona interesdunek horren inguruan alegazio eta oharrak aurkez ditzakete. Horretarako, irailaren 27an hasi zen 30 egun baliodunekо epea izango dute. ◂

Plentzia Garraio publikoa

Martxan dago Plentziako auzoak lotzeko Auzotaxi zerbitzua

Plentzian erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztiek erabili ahal izango dute Auzotaxi zerbitzua, astelehenetik barikura, 07:30etik 20:00etara, eta zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara; domeketan eta jaiegunetan ez da zerbitzurik egongo.

65 urtetik gorako edo mugikortasun murriztua duten herritarrak etxean jaso eta utziko dituzte.

Auzotaxiak metro-geltokia, Plentziako anbulatorioa eta Urdulizko ospitalea lotuko ditu auzoakaz. Zerbitzua aurreko egunean erreserbatu beharko da 946 910 177 telefono-zenbakira deituta, eta ibilbidearen geralekuak herriko autobus-geltokietan egongo dira. ◂

Berango Aurreskua

Lierni Paul Duce berangoztarra, Bizkaiko aurreskularirik onena

Joan den irailaren 17an, domekan, Leioako Ondiz auzoan izan ziren Bizkaiko LXI. Aurresku eta Emakumezkoen XIV. Aurresku txapelketak, eta, lehenengo postuan, Lierni Paul Duce 18 urteko berangoztarra gailendu zen, Bizkaiko txapela jantziz.

Aitzitik, hau ez da lehenengo aldia gazte berangoztarrak aurresku-txapelketak irabazten dituena. Horren adibide dira 2018ko Erandioko eta Ondizko lehiaketetako emaitzak: bertan ere txapelak jantzi zituen, gazte mailan.

Hala, gaztea izan arren daborduko badu Bizkaia mailan aurreskularirik onenaren izendapena. Ikusteke dago orain zeintzuk izango diren berangoztarraren hurrengo urratsak datozen txapelketetan. ◂

Berango Aurrekontuak 2024

Berangoztarren ekarpenak jaso ditu tokiko Udalak

Beste urte batez, Berangoko Udalak hainbat bitarteko ipini ditu irailean «Partaidetza bidezko aurrekontuak 2024» prozesua gauzatzeko. Zehazki, irailaren 11tik 24ra jaso zituzten herritarren ekarpenak. Hala, Udalari adierazi ahal izan diote zeintzuk diren, euren ustez, datorren urterako Berangok behar dituen proiektuak. Udalak 150.000 euro erabiliko ditu proposatutako egitasmoetatik aukeratutakoak gauzatzeko. ◂

Berango Antzokia

Antzokiari Fernando Ansoleaga zenaren izena jarriko diote

Berangoko antzokia, artxiboko irudian. BERANGOKO UDALA

Iraileko osoko bilkuran, tokiko Udalbatzak onartu zuen gaur egun Berango Antzokia gisa ezaguna den azpiegiturari izena aldatzea. Modu horretan, aho betez, duela hilabete batzuk zendu zen auzokide eta antzerki-zuzendari Fernando Ansoleagaren izena jartzea erabaki zuten. Iturriek azaldu dutenez, Berangoko bizilagunek proposatu zioten Udalari antzokiak bere izena eraman zezan.

Zendu aurretik, Fernando Ansoleagak *Berango, mi pueblo* izeneko proiektua garatzen hasi zen, non ume zenetik heldu izan arte udalerria zelan bizi eta ikusi zuen kontatzen zuen.

Obra ezin izan zuen taularatu eta, orain, Udalak asmoa du datorren urtean, maiatza aldean, antzerkira eroatea eta, egun hori aprobetxatuta, antzokia bere izen ofizial berriagaz inauguratzea. ◂

Gorliz Ondarearen Europako Jardunaldiak

Gorlizko latsarria eta euskal mitologia gogoratuko dute

Gorlizko Udalak Ondarearen Europako Jardunaldiei hasiera emango die urrian. Ekintza askoren artean, *Latsariak* dokumentala proiektatuko dute udaletxean hilaren 20an.

Urrian hainbat ekimen antolatu ditu Gorlizko Udalak Ondarearen Europako Jardunaldien barnean. Besteak beste, hilaren 20an, *Latsariak* dokumentala proiektatuko dute Gorlizko udaletxean, arrastiko 19:00etan. Hala, herriko emakumeen bizipenen eta testigantzen lekuko izan zen gunea oroitu gura dute, izan ere, emakumeen harreman sozialerako topagune izan ziren horiek. Halaber, Sertutxena eraikinean *Mitologia pertsonaiak* erakusketa egongo da ikusgai hil osoan zehar. Bertan, Aritza Bergara idazleak egindako deskribapenak eta kondairak egongo dira. Era berean, idazleak euskal mitologiaren inguruko hitzaldi bat emango du hilaren 28an, arrastiko 19:00etan, Ibarreta plazan. Gainera, Gorlizko ikastetxea ere bisitatuko du euskal mitologiari buruzko beste bi hitzaldi emateko. Bukatzeko, urriaren 31n, Gau Beltza ospatuko dute: arrastiko 17:00etatik aurrera Ibarreta plazan, musika, dantza tradizionalak eta jatekoa eskainiko dituzte. Hala, Gorlizko bizilagunek herriko euskal kultura eta mitologia ezagutzeko aukera izango dute gau ahaztezin batez gozatzen duten bitartean. ◂

Gorlizko latsarria. GORLIZKO UDALA

Gorliz Hirigintza

Hiru proiektu egingo dituzte aurrekontu parte-hartzaileakaz

Gorlizko Udalak 50.000 euro bideratuko ditu hiru proiektu hautatuak gauzatzeko.

Aurrekontu parte-hartzaileen behin betiko hiru proiektuen zerrenda aurkeztu du Gorlizko Udalak, eta 50.000 euro bideratuko ditu horiek gauzatzeko. Hurrengoak dira proiektuak: Gaminiz kaleko 11. eta 17. atarien arteko eremua oinezkoentzat egitea, oinezkoentzako pasabide berri bat margotzea eta espaloia egokitzea Barrenetxea parkearen goiko aldean eta Gandia plazan kirol anitzeko eremua handitzea. Hala, Udalak herritarrak inplikatu gura izan ditu udalerria bera hobetzeko prozesuan. ◂

Lemoiz 20. urtemuga

Eskolak 20 urte bete ditu dantza eta musika artean

2003an sortu zutenean, Haur Hezkuntzako 13 ikasle baino ez zituen Lemoizko herri-eskola txikiak; gaur egun Lehen Hezkuntza ere badute.

Hamarkada bi igaro dira 2003 hartan udalerriko 13 ikasleri zerbitzua emateko eskola sortu zutenetik. Haur Hezkuntzako etapak bakarrik betetzen zituen garai hartan eskola txiki honek, baina, garaiko familien ekinez, urte batzuk geroago, Lehen Hezkuntza bermatzea lortu zuten. Hala, gaur egun, 75 familia, 99 ikasle eta 14 irakaslek osatzen dute tokiko hezkuntza-komunitatea, eta, 20 urteotako urtemuga ospatzeko, jaialdi berezia egin zuten joan den irailaren 20an, eskolan bertan.

Magdalena Zabala tokiko zuzendariak eta Gorane Elorriaga ikasketa-buruak azaltzen dutenez, Lemoizko herri-eskola txikia udalerriko bakarra da, eta, ondorioz, gela berean zenbait adineko neska-mutilak elkartzen dira: «Haien arteko harremanak oso aberatsak izan ohi dira, eta elkarreragina eta kooperazioa era naturalean sustatzen dira».

«Eskola txiki izatea sentimendu bat da, zaindu eta elikatu behar dena. Gainera, publikoa eta txikiak izanda ere, punta-puntako gauzak egiten ditugu»

Diote eskola txiki izatea «sentimendu» bat dela, eta hori zaindu eta elikatu beharra dagoela. Horretarako, inguruko eskola txikiakaz sarean egon eta etengabeko informazioa trukatzeaz gainera, ikasleak beste zentroetara joaten dira haiek egindako antzerkiak edota aurkezpenak egitera, eta alderantziz.

Bi hamarkada hauetan, ikasle kopurua handituz joan da Lemoizen eta, horren ondorioz, beharrak aldatu dira ere. Hala, 2021ean, Eusko Jaurlaritzak eskola guztiz berrizteko lanak burutu zituen, «baina aldaketa ez zen espero genuen bezain handia izan», deitoratu dute. Ondorioz, Haur Hezkuntzako gelak txiki gelditu direla kexu dira arduradunak, metodologia berriztatzaileek beharrezkoa duten eremuak dutenak baino zabalagoak direlako. Hala ere, aurten, beste eskaera historiko bat lortu dutela nabarmendu dute eskolako zuzendariak eta ikasketa-buruak: jantoki propioa, Haur Hezkuntza zenaren lekuan kokatu dutena. ◂

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege Berria

Askoz gehiago ekartzeko eratua

- Erraztasun gehiago ulertu eta tramitatzeko orduan.
- Laguntza gehiago gehien behar duenari.
- Babes gehiago, arreta bereziarekin genero indarkeriaren biktima direnei.
- Arreta pertsonalizatu gehiago.
- Jasangarritasun eta eraginkortasun gehiago bere kudeaketan.
- Gizarte kohesio gehiago.

Zu bezalako pertsonei zuzendua:

- **Pentsiodunak pentsio baxuekin.**
- **Emakumeak** guraso bakarreko familien arduradun.
- **Biktimak** indarkeria matxista, sexu jazarpena edo terrorismoagatik.
- **Desgaitasuna edo mendekotasuna** duten pertsonak.
- **Langilea** diru-sarrera baxuekin.
- **Gazteak** bizitza independentearekin une larri batean.

Lanbiden zure laguntza-eskaeran babesten zaitugu.

Informatu hemen:
www.lanbide.eus
945 160 600

Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Lemoiz Andrakako San Frantzisko jaiak

Udagoienean ere, jaiak

Andraka auzoko herritarrek plan ezin hobea dute hilabeteari ongietorria emateko: urriaren 4tik 16ra bitartean San Frantzisko jaiak ospatuko dituzte kultura, dantza eta musika artean.

Uda ofizialki bukatu den arren, oraindino ez dira herri eta auzoetako jai guztiak bukatu. Horren adibide bat topa dezakegu Lemoizko Andraka auzoan; izan ere, bertako herritarrak –eta ingurukoak, zergatik ez– San Frantzisko jaietan murgilduko dira urriaren 4tik 16ra. Sei jaiegun izango dituzte gozagai, eta horietan, hainbat ekintza antolatuko dituzte auzotarrek, betiere tradizio zaharrak presente edukiz eta naturarekiko harremana gertu mantenduz.

Lehenengo eguna urriaren 4a izan zuten, eta eguerdiko meza santuagaz hasi zuten egitaraua, eta ondoren, auzotarrek hamaiketakoaz gozatu ahal izan zuten herriko eskolako trikitilariek giroa musikagaz alaitzen zuten bitartean. Bigarren egunean, urriaren 7an, txupinak jaiei ongietorria emango die arrastiko 16:30ean. Gainera, 17:00etan, umeentzako puzgarriak egongo dira haiek ere jaiak ondo has ditzaten. Ostean, umeentzako herri-kirolak ere egingo dituzte guztien artean betiko jolasez gozatzeko. Azkenik, arrastiari amaiera emango dio Humberto mariatxiaren musika festak, 19:30ean. Horregaz batera, doako talo postua ere egongo da, jatekoa eta edatekoa denontzako egon dadin. Hirugarren egunean, urriaren 8an, Etzandarri euskal mendi taldeak gidatutako mendi martxa egingo du ume eta nagusiei zuzenduta. Irteera Andrakako probalekutik izango da, goizeko 10:00etan. Beranduago, 12:30ean, hamaiketakoa egingo dute, betiere herriko eskolako trikitilariek alaituta.

Bukatzeko, urriaren 13an, 14an eta 16an Kinttopeko idi-probak egingo dituzte gaueko 21:00etan. Modu horretan, Andrakako auzokideek natura, ohiturak eta musika elkartuko dituzte udagoienean ere jaiez gozatzeko. ◂

Egitaraua

Urriak 4, eguaztena

12:00 Meza santua.
12:30 Hamaiketakoa herriko eskolako trikitilariek alaituta.

Urriak 7, zapatua

16:30 Txupina.
17:00 Puzgarriak.
17:30 Herri-kirolak umeentzako.
19:30 Musika festa Humberto mariatxiagaz. Talo postua, jatekoa eta edatekoa denontzako dohainik.

Urriak 8, domeka

10:00 Mendi martxa ume eta nagusientzako. Irteera Andrakako probalekutik Etzandarri euskal mendi taldeak gidatuta.
12:30 Hamaiketakoa herriko eskolako trikitilariek alaituta.

Urriak 13, barikua

21:00 Kinttopeko idi-probak. Asaskor Iruña (Jatabe), Lekanda (Urduliz) eta Usaizti (Berritxu).

Urriak 14, zapatua

21:00 Kinttopeko idi-probak. Lopategi (Birle), Zornotza Anaiak (Zalla) eta Korta (Gabiria).

Urriak 16, astelehena

21:00 Kinttopeko idi-probak. I.Oliden (Orio), Kamiñoko Jatetxea (Murueta) eta Soarte (Elgoibar).

Mendi martxa

Urriaren 8an, domekan, Etzandarri taldeak gidatutako mendi martxa egingo du goizeko 10:00etan, Andrakako probalekutik hasita.

Urduliz Lantoki historikoaren itxiera

Mecanerreko beharginak, borrokan

Irailaren 1ean, Mecaner lantegiko jabea den Stellantis multinazionalak 148 langile kaleratuko zituela iragarri zuen. Ordutik, langileak antolatu egin dira euskal industriaren eta Mecaner enpresaren etorkizunaren defentsan.

Beharginak mobilizatu egin dira haien lanpostuen defentsan.

Langileek azaldu dutenez, lantokiaren itxieraren erabakia Mecanerren jabe den Stellantis multinazionalak hartu du, Peugeot, Citroen, Opel edota Jeep marken jabe dena. Halaber, deitoratu dute multinazionalak «etekinak pertsonen aurretik jartzen dituela» eta, horren aurrean, argi adierazi dute euren lanpostuengatik borrokatuko dutela. Guztira 148 langile lan gabe geldituko dira; 144 Mecanerrekoak eta 4 garbiketa azpikontratakoak. Horren aurrean, beharginek hainbat mobilizazio egin dituzte: irailaren 15ean, langileak lantokiaren aurrealdean elkartu ziren multinazionalak hartutako erabakia salatzeko. Ondoren, irailaren 21ean, lantokiko ekoizpena eten zuten 24 orduko greba eginez; 06:00etan protesta egin zuten, eta 11:00etan manifestazioa fabrikatik udaletxera.

Guztira 148 langile kaleratuko ditu Stellantis multinazionalak; 144 Mecanerrekoak eta 4 garbiketa azpikontratakoak.

Langileek azaldu dutenez, itxiera «ez da ezer berria», izan ere, azken urteetan inguruko industria-enpresak etengabe ixten ari dira eta deitoratu dute Euskal Herria «turismo eta zerbitzuetako herrialde bat bihurtzen» ari dela. Hala, hurrengo mobilizazioa urriaren 7an izango da, Urdulizen ere, Mecaner eta euskal industriaren defentsan. ◂

ARTOLOZAGA
Tailerrak
ANAIAK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika
*Etxean zure kotxea jasotzeko zerbitzua eskaintzen dugu!
NEGUAN, IZAN ZURE KOTXEA PREST:
Automobileko **bateria errebisatu** eta, beharrezkoa bada, alda ezazu.
Olio, hozgarri, haizetako garbitzaile eta **balaztako likidoen mailak** ikusi.
Botika-kutxa egokia eta **manta** eroan.
Pneumatikoak aztertu. Komeni da neguko pneumatikoak edo elur-kateak eroatea.
Argi- eta balazta-sistemak aztertu.
Haizetako-garbigailuak aztertu.
*ITV-a gainditzeko irizpideak ematen ditugu!
BOSCH Service
Car Service
946 763 814 • talleresartolozaga.com • Gatzarriñe Kalea, 42 SOPELA

Klasikoak ez dira hiltzen

Scooter Klasikoen Bizkaiko Biraren bigarren edizioa egin zuten joan den irailaren 23an, eta, hala, beste garai bateko motozaleek Uribe Kosta zeharkatu zuten Lemoizen geldialdi bat egiteko. Egun horretan, Vespa motorren maitaleek kolorez eta nostalgiaz bete zuten Armintzako portua. Abiadura handiak hartzeko gai izan ez arren, motozikleta horiek berebiziko sentimenduak eta elkartasuna lortzeko gai direla erakutsi zuten.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** • ARGAZKIAK: **IKER TORRE NAVARRO** ▶

ade
BILBAO
Vespa

GR
2205

made
PIAGGIO

Vespa
made

Vespa
DOT N68FCBR 5120
SUPERSPORT

vespa
made

E
5858
HCS
Vespa

bjetty

Itxaso Paya Ruiz Kultur sortzailea

«Kultura janari *express* gisa kontsumitzen da»

Ekoizle, gidoilari, bertsolari eta aktore lanetan dabilen pertsona da Itxaso Paya Ruiz. Txiki-txikitatik kulturari lotutako askotariko hamaika jardueratan ibilitakoa da getxoztarra eta, egunotan, Muxikebarri Antzokian topatu ahal izan dugu oholtza gainean Maria Rivero kideagaz batera azaroaren 26an ofizialki estreinatuko duten *eMcumeak* satira musikala prestatzen.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **IKER TORRE NAVARRO** ▶

Juana Bizkarra egonaldi artistikoaren hirugarren edizioaren epaimahaiak *eMcumeak* lana aukeratu du, eta zu aktore arituko zara horretan. Zertan datza lan hori? Zelako Kultur Ideiak konpainiaren lehen produkzio serioa izango da *eMcumeak* ikuskizuna: euskal emakume sortzaileen «macdonalizazioa» agerian uzten duen satira musikala. Oholtza gainean musikan eta antzerkian eskarmentua daukagun emakume bi egongo gara, Maria Rivero eta ni neu. Maria musikari aparta da, eta nik, aldiz, esperientzia handiagoa daukat antzerkiaren munduan. Ondorioz, gure elkarlanaren emaitza satira musikal bat izango da.

Zein izango da zure pertsonaia antzezlanean? Protagonista bi izango gara, eta euskal emakume sortzaileen ikuskizunak kudeatzen dituen enpresa bateko jabearen eta langilearen paperak egiten ditugu ikuskizunean. Ni neu artista handia eta famatua izatearekin amestu ohi duen baina ekoizpenean lan egiten duen langilearen paperean azalduko naiz oholtzara. Pertsonaia dibertigarria da eta berarekin oso ondo pasatzen ari naiz prestakuntza lanetan. Olatz Beobide dugu zuzendari, eta izugarria da zenbat laguntzen ari zaigun, kasu honetan, pertsonaien eraikuntzarekin.

Hilabete osoan zehar egonaldia egin ostean, irailaren 29an jendaurreko entsegua egin duzue, non eta Muxikebarri Antzokian. Berezi egiten zaizu etxean aritzea? Oso berezia egiten zait. Nire lehenbiziko oholtza Getxo Antzoki zaharrekoa izan zen; 7 urte inguru izango nituen eta piano erakustaldia egin genuen Soinu musika eskolako ikasleok. Gerora, oholtza berean dantzan aritu nintzen hainbat urtez, Ana Rosa Terceroren ikasle fin gisa. Bertsotan ere eginda nago Getxo Antzoki zaharrean, eta baita Muxikebarrin ere. Hala ere, Juana Bizkarra egonaldi artistikoak berezi bilakatu du lehen aldi ez hain berri hau, izan ere, hilabete osoz baliabide ezin hobeak eskaini dizkigute eta etxean bezain eroso ari gara lanean.

eMcumeak

Euskal emakume sortzaileen errealitate gordina agerian utzi gura duen antzezlan hau azaroaren 26an aurkeztuko dute ofizialki, Getxoko Muxikebarri Antzokian. Hala ere, irailaren 29an jendaurreko entsegua egin zuten eta, irailaren 30ean eta urriaren 1ean saio itxiak publikoagaz.

Lan horren helburua da euskal emakumeen sorkuntzaren errealitatea mahai-gainean jartzea eta, aldi berean, kulturaren sektorean indarrean dagoen androzentrismoa agerian uztea. Zer egoera bizi du gaur egun emakumeen sorkuntzak? Mariak eta biok galdera bera egin genion geure buruari eta, erantzun bila, besteak beste, topaketa batzuen antolaketa sustatu genuen Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean. Bizkaiko Emakume Sortzaileen Topaketak (BEST) antolatu genituen iaz eta, laster, urriaren 21ean, zehazki, bigarren edizioa egingo dugu. Hau antolatzea barrutik atera zaigun zerbait izan bada ere, argi eta garbi Bizkaian ezinbestekoa, beharbeharrezkoa den ekintza da, eta horrela adie-

razi digute lehen edizioko parte-hartzaileek. BESTek Bizkaiko emakume sortzaileen konstelazioa irudikatu nahi du kulturgintzaren zeruan, izan ere, sortzaileak izarrak bezain ugariak dira, baina ez dago konstelaziorik. Hau da, sortzaile asko dago, baina bakoitza bere bidean; beraz, elkarlan berriak, sare berriak, partekatzea eta elkar ezagutzea ahalbidetu nahi dugu proiektu honen bidez.

Pandemiatik hona sortzaileak kexu dira aukera gutxi dagoelako aurrera egiteko kulturaren bidetik; egoera zaildu egiten da emakumeen kasuan? Aurrerapausorik egon al da azken urteetan? Egoera ez dut uste zaildu denik, jadanik zaila baitzen lehendik. Egun, orain dela bi hamarkada existitzen ez ziren erreferenteak existitzen dira, behintzat, eta hori aurrerapauso bat da. Hori bai, bide oso luzea daukagu oraindik aurretik. Iruzurgilearen sindromea plaga bat bilakatu da, esate baterako, eta sortzaile ugari ez da kobazulotik ateratzera animatzen. Plazan ari direnak, lortu dutenak, egunero borrokatzen direnak kobazuloaren bestaldean... Horiek erreferente ditugu, eta bide berri bat zabaltzen ari dira. Azken urteetan gero eta gehiago dira oihartzuna izaten ari diren emakume sortzaileak eta, gainera, gero eta kultur esparru zabalagora iristen ari gara.

Zelakoa izan da *eMcumeak* bezalako obra bat sortzeko lana? Ideia etorri zen lehenbizi eta oholtza eramateko erabakia ondoren. Maria Rivero eta biok egon gara prozesuaren hasieratik elkarlanean. *eMcumeak* antzezlana, Eusko Jaurlaritzak, Zinelekuk eta Getxoko Kultur Etxeak diru-laguntza bidez sustatutako ikuskizuna da, eta horiek gabe ez legoke proiektua aurrera eramateko aukerarik. Zelako Kultur Ideiak Kooperatiba Elkarte Txikian jaioberriak gara eta elkarlanean ari gara etengabe, beraz, guk jaso genezakeen edozein laguntzak beste inoren etekina ere badakar. Esan genezake Katixa Agirre eta Harkaitz Cano, nolabait, proiektu honen «guraso pontekoak» direla. Izan ere, Zinelekuk proiektu honi saria eman zion eta Garaion Sorgingunean igaro genuen hainbat egun idazle handi bi horiekin batera. Haien aholkuak, iradokizunak, proposamenak, ariketak eta abarrak islatzen dira gerora garatutako proiektuan. Haien oniritzia jasotzea ahalduntze ariketa magikoa izan zen, bat-batean nor sentitu ginen.

Gerora, Getxoko Kultur Etxeko kultur programazioko diru-laguntzara aurkeztu ginen eta, horri esker, *eMcumeak* ikuskizuna Muxikebarrin estreinatuko dugu ofizialki azaroaren 26an. Behin olatuan surfean hasita,

Juana Bizkarra

«Hirugarren aldia da Juana Bizkarra egonaldi artistikoa antolatzen duena Getxoko Kultur Etxeak eta sortzaileontzako aukera paregabea da. Aukera horiei esker gure proiektua ilusioz eta modu duinean atera dezakegu aurrera»

Juana Bizkarra sormen egonaldi artistikora aurkeztu ginen, eta, horri esker, hilabete osoan Muxikebarriko Arrigunaga aretoa eta beste hainbat baliabide eskura izan ditugu.

Esan bezala, ez da lehenengo aldia izango Riverogaz lan egiten duzuna; horregaz, oraingo antzezlana produzitzeaz gainera, *Nor da Maurizia* ikuskizun pedagogikoa aurkeztu zenuten iaz. Horren gidoilaria izan zinen zu, eta baita aktore nagusia ere. Zer sentitu zenuen pandero-jole ospetsuaren paperean? Esperientzia ederra izan da. Zelako Kultur Ideiak kooperatibako langileok argi daukagu zer egin nahi dugun: sorkuntzarekin egin nahi dugu lan, inguruko aliatuekin elkarlanak bideratu eta gure baloreak (berdintasuna, kulturgintza eta euskara) dituzten proiektuetan sakondu.

Ezin da errekonozitu ezagutzen ez dena. Nor izan zen Maurizia? Tiktoker bat balitz, beharbada, umeek ezagutuko lukete, baina, zoritxarrez, 14 urteko edozein euskal gazteri galdetuz gero, ez du jakingo Maurizia nor izan zen. Azkenaldian, egia da Maurizia Aldeiturriagaren irudia eta izena indar handia hartzen ari direla, ez izana, ordea, eta *Nor da Maurizia?* ikuskizuna taularatzerakoan hori izan dugu helburu: nor izan zen azaltzea eta zergatik den gure kulturaren parte. Kultur sortzaile eta eragile gisa, eta nire neure irizpideen arabera behin-

Antzezlana Eusko Jaurlaritzak, Zinelekuk eta Getxoko Kultur Etxeak sustatutako ikuskizuna da.

tzat, ezinbesteko funtzioa du transmisioak; jakin behar dugu zein izan diren gure erreferenteak gero erabakitzeko zer bide hartu.

Pertsonaia ugari gorpuztu izan ditut, baina Maurizia bezalako pertsonaia baten azalean jartzea erabat berezia izan da. Emakume ausarta, ziurra, dotorea, sutsua eta indartsua izan zen; bera interpretatzea opari bat izan da niretzat, eta uste baino zipriztin handiagoa utzi dit barruan. Asko miresten dudan pertsonaia da Maurizia, eta berarengandik ahal beste xurgatzen ahalegindu naiz.

Nor zen, bada, Maurizia? Nolabait, aitzindaria izan zen emakumea kulturaren erdigunean jarrita, ezta? Bai, argi dago. Izan ere, Maurizia Aldaiturriaga Zabala Zeberioko pandero-jotzaile ezaguna izan zen. 12 urterekin atera zen plazara lehen aldiz eta, alzheimerrak eraginda panderoa jotzen ahaztu zuen arte, luze aritu zen plazaz plaza. *Aupa Maurizia!* liburu biografikoa irakurtzen duenak edo *Nor da Maurizia?* ikuskizunaz gozatzera joaten denak zein estreinatu berri den bere inguruko dokumentala ikustera doanak jakingo du Mauriziaren bizitza pasarte eta pasadizo ederrez beteta egon zela. Nire kuttunenak hiruzpalau dira, esate baterako, egun bakarrean hiru sari irabazi zituen eguna edo *Karakol* bere senarrari kantatutako koplak. Emakumeak beti egon dira, eta emakumeek beti egin dute, hala ere, zoritxarrez, oihartzuna mutuarazita egon da luzaro. Transmisioari esker, Maurizia ezagutzeko aukera izan dugu.

Transmisioa

«Ezinbesteko funtzioa du transmisioak; jakin behar dugu zein izan diren gure erreferenteak gero erabakitzeko zer bide hartu»

Interneta

«Nire ustez, euskal gizartearen zati batek online aukera hori ukatzen du eta horrek garapenerako bidea zailtzen du. Hala ere, oraindik ere, euskararen presentzia sustatu beharra dago»

Agertokietan eskarmentu handikoa zara zu ere. Nondik datorkizu kulturarekiko zaletasun hori? Paya Ruiztarra da gure familia, berez, eta horri esker jaso dugu plazandre, eszena, sorkuntza eta horrelako kontzeptuekiko ezagutza. Gure aita, Alfredo Ignacio Payá Santamaría, itsasgizona izan zen; denbora gehiago ematen zuen itsasoan etxean baino. Itsasontzian izugarrizko kontzertuak ematen omen zituen, eta etxean ere, atzamar zati pare baten falta bazuen ere, gitarrari sua ematen zion baimena ematen genion gehienetan. Gure amak, Carmen Ruiz Bracerasek, antzerki ikasketak egin zituen, eta Estatu mailako sari garrantzitsu bat irabazi zuen aktore gisa. Itsasgizona eta plazandrea, bikote magiko baten emaitza gara Fredi, Xabier eta hirurok. Txikitatik kultura ardatz izan dugu etxean, beraz: antzerkia, musika, hizkuntzak.

Txikitan kontatu eta kantatzen zizkiguten abesti eta ipuinetako protagonistak beti izaten ziren ezohikoak, ikastolako lagunek haiei buruz hitz egiten zenuenean ezagutzen ez zituztenak. Ama aktorea eta aita itsasgizona, bada, hori. Bikoteak argi zeukan kultura zehar lerro nagusi izango zutela seme-alabek.

Orokorrean, kulturak zer egoera bizi du gaur egun? Zein da gaur egun publikoak duen kontsumitzeko ohitura? Oholtzetatik eta plazetatik onlinera salto egiteko beharra dago? Kontsumitzeko modua aldatu egin da, eta horretaz ere hausnartzen dugu *eMcumeak* proiektuan. Azken batean, egun, kultura janari *express* gisa kontsumitzen da sarri: merke eta arin. Plaza eta online eskaintza bateragarriak dira, transmedia erabileraren erako aukerak gero eta gehiago dira eta, beraz, elkarren lagun izan daitezke. Egia da, nire ustez, euskal gizartearen zati batek online aukera hori ukatzen duela, eta horrek garapenerako bidea zailtzen du. Hala ere, batean zein bestean, oraindik ere, euskararen presentzia sustatu beharra dago.

Online kontsumoa, batez ere, erdalduna da. Badago aukerarik euskarari bide egiteko horretan? Kontsumo oro, batez ere, erdalduna da. Beti izan da horrela eta, ziur aski, beti izango da. Zenbat euskal hiztun dago? Bada, gainerako guztiak erdaldunak dira. Ondorioz, proportzioan, on zein offline, kontsumoa erdalduna da. Hori horrela izanda, uste dut mundu digitala aukera bat bezala interpretatu beharra dagoela mehatxu gisa ordez. ◂

Urria-azaroa

Barrika

Urriak 20, barikua
Toponimia hitzaldia
18:00 | Ander Deuna aretoan
Informazio gehiago: 946 775 163 eta liburutegia@barrika.eus.

Urriak 21, zapatua
Emakumea eta kirola jardunaldia
10:00 | Emakumeen Hitza lokalean
Udal Kultur Gunea.

Urriak 31, martitzena
Arimen gaua: *Ipuin Beltzak*
18:00 | Elexaldeko frontoian
Ipuin-kontaketa eta familientzako dinamikak.

Berango

Urriak 15, domeka
Umeentzako antzerkia: *Eko piratak*
18:00 | Berango Antzokian
Irudimenari esker, existitzen ez dena sortuko dute protagonistek.

Urriak 22, domeka
Umeentzako zinema: *Ilargirantz*
18:00 | Berango Antzokian
Bidaia magikoa lurralde misteriotsu batera.

Urriak 27, barikua
Baserri sorgindua
18:00 | Berangoeta kultur etxean
Ikuskizun beldurgarria Arimen Gaua prestatzeko.

Urriak 28, zapatua
Disko-festa
20:00 | Frontoian
Gazte zein nagusientzako festa DJ Urkogaz.

Erandio

Urriak 15, domeka
Dantzakale
18:00 | Astrabuduan
Hainbat talderen dantza-erakustaldiak.

Urriak 21, zapatua
Zutik festibala
Josu Murueta plazan
Egun osoko egitaraua antolatuko du Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak.

Urriak 21, zapatua
Berbotslagunen Eguna
Motagane Txakolindegian
Erandioztar euskaltzaleak elkartzeko eguna.

Getxo

Urriaren 6tik 22ra
41. Getxo Eszena - Arte Eszenikoen Jardunaldiak
Muxikebarrin
Askotariko eta kalitatezko arte eszenikoen emanaldiak: antzerkia, dantza, zirkua, haurrentzako ikuskizunak...

Urriaren 6tik azaroaren 5era
Erakusketa: *Ertibil Bizkaia 2023*
Begoñako galerietan
Sortzaile berriren lanak biltzen dituen erakusketa.

Urriak 22, domeka
Pirritx, Porrotx eta Marimotots: *Urteak bete, abenturak bizi*
16:30 eta 19:00 | Muxikebarrin
Euskal Herriko pailazo ezagunenen urtebetetzeko-ospakizuna! Saio bikoitza eskainiko dute.

Urriak 28, zapatua
24. Indabada
San Nikolas plazan

Gorliz

Urriak 20 eta 28
Ondarearen Europako Jardunaldiak
19:00 | Udaletxean eta Ibarreta plazan
Latsariak dokumentalaren proiekzioa, 20an, eta Aritza Bergararen berbaldia euskal mitologiaren inguruan, 28an.

Urriak 27, 28 eta 29
Urri gastronomikoa
Ibarreta plazan
Pintxo-lehiaketa, eskualdeko garagardo artisauak, kontzertuak eta tailer gastronomikoak.

Urriak 29, domeka
XXXI Mendibike Gorlizko Martxa
09:00 | Kiroldegian

Leioa

Urriak 20, barikua
Musika: Ian Siegal
20:30 | Kultur Leioan
60. hamarkadan sortu ziren blues artistarik arrakastatsuenetakoa.

Urriak 22, domeka
Antzerkia: *Ehunzango baten ipuinak, batzuk zeharrez doaz, besteak aldrebes*
18:00 | Kultur Leioan
Familia guztiarentzako antzerki dibertigarria.

Lemoiz

Urriak 4, 7, 8,13, 14, 16 eta 17
Andrakako San Frantzisko jaiak
Egitaraua: hiruka.eus

Urriak 13, 14, 15 eta 17
Armintzako Santo Tomas jaiak
Egitaraua: hiruka.eus

Plentzia

Urriak 21, zapatua
Musika tailerra familian
11:00etan eta 12:00etan | Goñi Portalen
Bi pase egongo dira, baina aldez aurretik izena eman beharko da parte hartzeko.

Urriak 31, martitzena
Halloween festa
17:00 | Goñi Portalen
Aldez aurretik izena eman beharko da.

Sopela

Urriak 20, 21 eta 22
Mendiari eskainitako aste-akabua
Kurtzio kultur etxea
Munarrikolanda Mendi Taldeak 25 urte betetzen ditu eta hainbat jarduera prestatu dituzte hori ospatzeko: Mendi Tour, hitzaldiak eta dokumentalen proiekzioak.

Urriak 27, barikua
Antzerkia: *Sexberdinak*
20:00 | Kurtzio kultur etxean
Bi lagunen arteko bizipen afektibo sexualak, umorez eta minez tratatua.

Urriak 29, domeka
Umeentzako zinema: *DC Supermaskoten liga*
18:00 | Kurtzio kultur etxean
Umeentzako animazio zinema, euskaraz.

Urriak 31, martitzena
Arimen Gaua: Izuaren Pasartea
Kurtzio kultur etxean
10 urtetik gorako umeentzako abentura.

Urduliz

Urriak 8 eta 22
Ondarearen Europako Jardunaldiak
10:30 | Andra Mari elizatik aterata
Santa Marina Munarria: Landako emakumeak eta jendea. Baseliza hobeto ezagutzeko txangoa.

Dermitekeko Flebologia Unitateko taldearen argazkia.

Kendu zure barizeak zain barneko laserraren bidez eta hobetu zure bizi-kalitatea

Bada atseden hartzea eragozten dizun mina eta koskor antiestetikoak kentzeko unea. Dermiteken 2010. urtetik erabiltzen dugu zain barneko laserra: zauririk gabeko teknika da, oso eraginkorra; ez du albo-ondoriorik eta barizeak berriro agertzeko tasa txiki-txikia da.

ZURE OSASUNEAN ETA IRUDIAN ERAGINA DUTEN SINTOMAK. Azkurak, erremina, sumina, zango-astuntasuna eta arrampak dira, besteak beste, barize lodien sintomarik ohikoenak. Hala ere, zure osasunari eraso egiten dioten beste konplikazio batzuk ager daitezke, esaterako, bena-gutxiegitasuna duten pazienteei gerta dakizkiekeenak. Hortaz, zalantza hau izango duzu: ebakuntza-gelatik igarotzea izango ote da konponbide bakarra?

Litekeena da ohiko kirurgia probatu izana eta denboraldi baten buruan barizeak berriro agertu izana. Beraz, puntuak, anestesia orokorra eta susperraldi luzea berriro jasateaz pentsatzean soilik berriz saiatzeko asmoa baztertzen duzu. Zorionez, badaude beste teknika azkarrago eta eraginkorrago batzuk, eta horiei esker barizeak oso gutxitan agertzen dira berriro.

ZAIN BARNEKO LASERRA: NAZIOARTEAN GOMENDATZEN DEN LEHEN AUKERA. Zain barneko laserra tratamendu segurua, zehatza, azkarra eta eraginkorra da, tratatu beharreko barizean zuzenean jarduten duelako, hots, zangoaren gainerako aldeei eta hurbileko ehunei erasan gabe.

Ahaztu ebakiak, puntuak edo ebakuntza-ondoko minak. Berehala ekin egingo diozu berriro zure ohiko jarduerari, ez duzu laneko bajako egun bat ere ez eskatu beharko, oinez irtengo baitzara kontsultatik. Horregatik, gaur egun, osasun baskularreko nazioarteko erakunde nagusiek tratamendu hori gomendatzen dute barize lodiak tratatzeko lehen aukera gisa, eta gaixotasun hori zuten milaka eta milaka pazienteen bizimodua aldatu egin du.

Bilboko Dermitek klinikan 2010. urtetik erabiltzen dugu teknika hori, eta gaur egunera arte tratatu ditugun 3.200tik gora kasuen % 99,6k behin betiko emaitzak lortu ditu, eta koskorrak guztiz desagertu dira.

Ohiko kirurgian errezidiba (barizeak berriro agertzea) ehunekoa % 20 ingurukoa da, eta aparrez tratatu direnena, berriz, % 40 ingurukoa; gure esperientziaren arabera, zain barneko laserraren bidez tratatu direnena, aldiz, % 0,4koa baino ez.

Oraindino uste al duzu berriro saiatzeak ez duela merezi?

P.S.E. 92/21

dermitek by Grupostop
Uribitarte pasealekua 11-12
48001 BILBO
(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefonoa
944 010 110

Astelehenetik barikura:
8:30-20:00

Zapatuetan:
9:00-15:00

Lehen/Orain **Armintzako portua, 1932an**

ITURRIA: INDALECIO OJANGUREN

Uribitakora

TESTUA
Josu Landeta Egurrola

DOINUA
Zimeltzen doazen loreak

ARGAZKIA
Iker Torre Navarro

Sasiek jandako alorra

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Udaberria heldu zen eta
lore ugari ziren hazi,
mortu antzean zegoen oro
bilakaturik oasi.
Ur tanta eta eguzki printzek
landa margoz zuten jantzi.
Handi-mandiek lore ederrokin
zer ahal zuten irabazi?
Paradisu bat eraiki guran
denak zituzten erauzi.

A ze tristura hango landetan,
lehen dena zegoen alai.
A ze amorrua, pizti krudelok
euren patrika puztu nahi!
Lege(e)n indarrez sasi-zeru bat
jarri ziguten han salgai
gizalegea maite zuena
bihurturik haien etsai,
jakina baitzen lore mardulak
ez zirela irauteko gai.

Begira lehengo lore sanoak
laster otzaretan zimel,
begira lehengo landa joriak
hain kolorge eta hain ustel.
Diru goseak herriko bazter
oro eraiki nahian krudel,
eguzkipeko leku gozoa
bilakatu digu hozpel.
Lur barik hemen arnasik ez da,
ez jokatu horren epel!

Lazka

«Musika-estilo batzuk ‘zarata’ gisa hartzen dira»

TESTUA: **ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO**
ARGAZKIA: **LAZKA**

Udako ajea pasatzear dugula eta ikasturte berriko kontzertuen agenda amaiezina aurrean izanik, tartea bilatu dugu gure musika-talde txikiagoen zerrendara gertuko laukote bat gehitzeko. Eta nola ez, ziur nago aurrekoan Dimako Dimetal jaialdian ibili zirela ideia berrien bila. Lazka taldeaz ari gara, noski, Uribe Kostako rock astunaren, eta apur bat metaleroaren, adibideetako bat. Arnasa hartu eta goazen orratza euren gainean jartzera.

Nortzuk zarete Lazka, eta nondik zatozte? Saitu, Masel eta Iñakik elkarrekin jotzen zuten talde batean, eta, 2019an desegin zenean, Davekin elkartu eta proiektu berria hastea erabaki genuen. Gutxika entseatzen hasi eta, taldekide bakoitzaren estiloa nahastuz, *Isiltasunaren jabe* maketa atera genuen.

Zelan ikusten duzue Euskal Herriko eta zuen herriko musika eszena duela hainbat urtekoarekin konparatuta? Musika eszena nahiko desberdin ikusten dugu garai batekoarekin alderatuta. Azken 15 urteetan aldaketa nabarmena egon da jaietan, gaztetxe edota tabernetan entzuten ziren eta entzuten diren musika eta kontzertuen artean, bai estilo aldetik eta baita herriko taldeak jotzeko duten aukera aldetik ere. Gero eta zailagoa egiten da kontzertuak egitea, udalek traba pilo jartzen baitituzte. Nolabait, badirudi orain beste musika-estilo batzuk bultzatzen ari direla, eta ez rocka.

Zelan ikusten duzue musika zuzenean jotzeko dauden aukerak? Gaur egun, eta are gehiago pandemiagatik, musika zuzenean entzuteko leku eta tabernen murrizketa ikusi dugu. Beste musika-estilo batzuk baliteke entzule eta jarraitzaile gehiago izatea eta, horrenbestez, erraztasun handiagoak dituztela uste dugu. Musika-estilo batzuk «zarata» bezala hartzen dira eta leku askotan horietarako lekurik ez dagoela dirudi... Hala ere, maketa-lehiaketak bezalako ekintzei esker, talde ezezagunei aukera ematen zaie zuzenean jotzeko. Esperantza txiki bat daukagu, are gehiago ikusita azkenaldian gero eta taberna gehiagotan hasi direla kontzertuak antolatzen.

Influentziak

Taldekide bakoitzak musika-estilo desberdinak entzuten ditu eta ez dugu guztiz bat egiten. Pop, punk, rock eta metal musika dira gehien entzun izan ditugun estiloak. Euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez, beraz hamaika talde daude... Txapel Punk, Berri Txarrak, Su Ta Gar, Latzen, Lehiotikan, Kuraia, Nirvana, Rise Against, Linkin Park, Hatebreed...

Orain dela hilabete batzuk Algortako jai-batzordeak antolatutako maketa-lehiaketan izan zineten. Zelakoa izan zen esperientzia? Esperientzia itzela izan zen bertan aritzea. Parte hartu genuen taldeen artean maila handia ikusi genuen eta kontzertu politak disfrutatu genituen. Gainera, talde gazteak izanda, ondorengo belaunaldiak indartsu eta gogoz datozela dirudi, eta horrek pozten gaitu! Ezin ahaztu antolatzaile eta lehiaketa posible egin zuten guztiak, eta espero dugu hurrengo urterako talde gehiago aurkeztea eta denok musikaz disfrutatzea! Mila esker!

Epe laburrera proiektu berririk ba al duzue? Hurrengo hilabeteetarako pare bat kontzertu ditugu lotuta eta, bitartean, abesti berriak sortzen jarraituko dugu.

Adelaida Umaran eta Manu Moreno Busterri Herri Antzerkia elkarteko atrezzo arduradunak

«Tokiko historia herritarrek kontatzeko tresna da herri-antzerkia»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

Irailaren akabuan Gorlizen egin bezala, urriaren 7an, zapatuan, Busterri Herri Antzerkia elkarteko kideek *1836 su biren artean* antzezlana taularatuko dute Plentzian, Eleiz plazan. Hala, elkarteak bost edizio beteko ditu Gorlizen edota Plentzian jazotako pasabide historikoren bat antzezten. Oraingoan, XIX. mendean Plentzian bizitako karlisten eta liberalen gudan oinarritu dira.

Busterri elkarteko atrezzo arduradunak dira Adelaida Umarane eta Manu Moreno: Umaranek, besteak beste, obrako zakuak eta janaria erosi ditu, eta Moreno armamentua sortzeaz arduratu da, baita obraren tabernako altzarien sorkuntzaz ere. Hala, antzezlanerako sortu edota lortu behar izan dituzten objektuen atzean antolakuntza zehatz bat dagoela aitortu dute: «Obraren zuzendaria den Jokin de Pedrok dokumentazio lan handia egin du. Gidoia beragaz irakurri dugu garaia kokatzeko eta, gero, artxibo historikoetan bilatu dugu jakiteko zer objektu zeuden, baita zer ez zegoen zehazteko ere». Modu horretan, detaile guztiak zaindu dituzte. «Tabernariak umeei jatekoa ematen die; sagarrak eta intxaurrak. Esaterako, platanoa agertzea ez zen zuzena izango, ez zelako orduko Plentziako fruta arrunt bat», azaldu du Umaranek.

Ordea, batzuetan bestelako erabakiak ere hartu daitezkeela azaldu dute: «Historiari erreparatuz, karlisten eta liberalen jantziak oso antzekoak ziren, baina zuzendariak erabaki zuen karlistak gorriz joatea eta liberalak beltzez. Modu horretan, euren itxurak ezberdindu eta nabarmendu gura zituen antzezlanaren barnean».

Busterri elkartearen bosgarren edizioa da aurtengoa. AROA SOTELO VELASCO

Bizkaieraz

«Antzezlana bizkaieraz da, Uribe Kosta-Butroi inguruko euskaran. Pertsonai batzuek gaztelaniaz mintzatzen dute, baina justifikatuta dago testuinguru historikoagatik. Esaterako, funtzionarioek edota kanpotarrek gaztelaniaz egiten dute»

Bere aldetik, Moreno duela bi urte hasi zen armak eta altzairuak egiteko probak egiten: «Hasieran, moldeak erretxinagaz egiten nituen, baina ez zenez etxean sikatzen, konturatu nintzen zuragaz gutxiago tardatuko nuela». Hala, lehenengo prototipoa egiteko aste bat egon zen; egun, astero hiru edo lau eskopeta egiten ditu. Guztira, antzezlan honetarako, 28 arma sortu zituen maiatza eta ekaina artean. Halaber, jostunek egiten duten lana nabarmendu dute kide biek: «Ordu luzez aktore guztien jantziak josten dituzte eta, gero, pertsonai guztien jantzitegia gainbegiratzen dute banan-banan».

Gainera, atrezzoaz arduratzeaz gain, Umaranek eta Morenok figurante bezala ere antzeztuko dute obran. Modu horretan, daborduko egun gutxi falta dira *1836 su biren artean* antzezlanak Plentziako plaza bere magiaz bete dezan. ◀

Maite Garcia Ruiz Gurasoen eta seme-alaben arteko hizkuntza-ohiturak

«Euskara ezin daiteke indarrez txertatu, bestelako estrategiak behar ditugu»

Urriaren 18an, umeek euskara gehiago erabiltzeko gurasoek duten rolaz arituko da Maite Garcia Euskal Filologian doktorea eta unibertsitateko irakaslea. Muxikebarri Antzokian.

ANDER ZARRAGA ▶

Berbaldia Haurren Aurrean Helduok Heldu dinamikaren barruan egingo dute. IKER TORRE

Ikastetxe bateko D ereduko 19 familien hizkuntza-politiken inguruko tesia defendatu zuen Garciak joan den martxoan. «Laburbilduz, tesian gurasoen hizkuntza-politikak aztertu ditut: zein estrategia darabilten, zeintzuk diren beraien usteak eta aurrera daramatzaten estrategiak, besteak beste».

Azpimarratu duenez, familia horien artean desberdintasun asko egon arren, seme-alabak euskaraz egin dezaten ahalegintzen diren guraso askoren artean puntu amankomun bat aurkitu du: frustrazioa. Dioenez, «hainbat gurasok uste dute umeak eskolara D eredura eramanda eta beraiek ere etxean euskaraz eginda seme-alabek ere euskaraz egingo dutela, baina aitortu dute ez dela horrela, aurreikuspenak ez direla betetzen».

Bere ustez, umeen hizkuntza-sozializazioan eragina duten faktoreak hainbat dira, gaur gaurkoz hizkuntza ez baita bakarrik gurasoetatik seme-alabetara zuzenean transmititzen. «Onartu behar dugu kontrol falta dagoela hainbat eremutan, ez dela gauza matematikoa eta hainbat faktoreren arabera aldatzen dela», azaldu du Garciak. Halaber, azpimarratu du gurasoen eta umeen nekeak eta frustrazioak kontrako eragin nabarmena dutela prozesuan eta lortzen den emaitza ez dela bilatzen dena: «Helburuak ezin daitezke indarrez lortu, eta saiatu behar gara umeak euskarara erakartzen, haien interesekoak diren ekintzak sustatuz, asertibitatearekin jokatzen, eta ez inposatzen. Zenbat eta estrategia gehiago izan orduan eta aukera gehiago izango ditugu gure helburuak lortzeko».

Urriaren 18an, Muxikebarrin emango duen berbaldian, gai horren inguruan gurasoakaz hartu-emana izaten saiatu gura duela aurreratu du, ezer inposatu gabe beraien kezkak jaso eta aholkuak emateko. «Helburuetako bat da zailtasunen kontzientzia hartzea eta dauden tresnak gure alde erabiltzen ikastea. Adibidez, pantailak baliabide onak izan daitezke, beraien interesekoak diren euskarazko edukiak baliatzen baditugu». ◀

Egitaraua

Haurren Aurrean Helduok Heldu

Urriaren 19tik 29ra:

Hitzaldia: «Umeek euskara gehiago erabiltzeko helduon rola» eta ipuin kontalaria.

Aurkezpena Jon Plazaola eta Itsaso Payaren eskutik; esketxak, musika, fotomatoia...

Pantailak Euskaraz hitzaldia gurasoentzat eta *gamer* gela.

Ahalduntze eskolak...

Egitaraua osorik:
www.getxoztarrak.eus

Kulturaren izenean

JONDALAR SOTA Historialaria

Ez da lehen aldia entzuten duguna proiektu bat, kulturaren izenean, atzerriko erakunde edo enpresa handi batetik datorrela, eta gure inguruan kokatu nahi dutela, ingurumen ekologia suntsituz, tokiko kultura-beharretatik urrun dauden arkitektura eta edukiak inposatuz. Enpleguari, iraunkortasunari eta turismoari buruz asko hitz egiten dugun arren, ahaztu egiten dugu kulturaren izenean gure biodibertsitatea arriskuan jartzen dugula eta beste kultur etxe batzuk sortzea ere eragozten duela, proiektu handiek baliabide guztiak eramango dituztelako eta, ondorioz, gainerakoak apurrekin konformatu beharko dira.

Hori eskala handiko proiektuei aplika dakieke, hala nola Urdaibaiko Guggenheimi, baina toki-mailan, kultur jardueren parte diren hainbat ekitalditan aurki ditzakegu adibideak: aztarnategi arkeologikoak zeharkatzen dituen lasterketan edo motorrentzako pista batean, paisaia arriskuan jartzen duten natura-inguruneetako jaialdietan... Kultur jarduerak beharrezkoak dira, gizarte gisa aberasten gaituztelako, baina horien atzean zer ezkutatzen den galdetzen hasi behar dugu; benetako kultura sustatu, ez negozioa egin. Kulturaren izenean, dena ez da onargarria; ezin dugu suntsitu eraikitzen ari garela sinetsarazten dugun bitartean.

Koherentzia 365!

SOS KURKUDI

Kurkudi mendiaren hegoaldeko magalean egin nahi duten makrogimnasio pribatua eta Bolue eta unibertsitatearen arteko edukiera handiko errepidea lurzoru babestuaren hirigintza suntsitzailearen adibide argiak dira, promotoreei eta jabe handiei bakarrik mesede egiten diena. Getxo, Berango, Urduliz eta Barrikarako aurreikusitako hirigintza-garapenak bultzatzen dituzte, baina, logela-hiriak besterik ez direnez, eta eskualdeko garraio kolektiboko sare defizitarioaren ondorioz, ibilgailu pribatua erabili beharko da Bilbon, Txorierrin eta Ezkerraldean dauden lanetara joateko.

Mugikortasunaren Europako Astea dela-eta SOS Kurkudik egin duen azken dibulgazio-kanpainetako bat, hain zuzen ere, politika publikoen inkoherentziaren alderdi horretan oinarritu da. Politika publikoek akordioak sinatzen dituzte eta ingurumena babestearen aldeko efemerideak ospatzen dituzte, baina ez dituzte politika koherenteak eta iraunkorrak aplikatzen. «Koherentzia 365!» izan da gure leloa.

Azkenik, dei egin nahi diegu ingurumenaren defentsarekin sentikorrak diren eta inplikatuta dauden elkarte eta pertsonei Kurkudiren defentsaren kausaren alde egin dezaten.

Horoskopoa

Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)
Aspalditik zaude zure irakurzaletasuna elikatzeko gogoakaz. Ikusi dituzu HIRUKAn zozkatzen ditugun liburuak? Zure aukera da!

Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)
Asko miresten duzun pertsona batek hanka sartuko du. Gogoratu inor ez dela zure espektatiben erantzule.

Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)
Udagoienaren hasieragaz batera, zure osasunak txarrera egin du. Zaindu eztarria, auzokoek ezin dute lorik egin zure eztularen zaratagaz!

Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)
Beti berdina jaten duzu eta ez diozu otorduari merezi duen denbora eskaintzen. Antolatu asteka zure jatekoa eta ikusiko duzu aldaketa!

Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)
Denbora xahutzen duzu planak antolatzen baina, gero, ez duzu inoiz denborarik horiez disfrutatzeko. Utzi plangintza eta hasi bizitzen!

Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)
Azken boladan begirada guztien jabea zara. Ligatzea dibertigarria da, baina nor gustuko duzu benetan? Ondo aukeratu! (Edo ez...)

Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)
Hurrengo asteetan pertsona berezi bat ezagutuko duzu. Egun dituzun zalantzetarako giltza da. Adi egon!

Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)
Azken boladan nahiko gezur esan dituzu eta errudun sentitzen zara. Zaila izan arren, batzuetan hobe da zintzoa izatea.

Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)
Egon lasai, azken asteetako zorte txarra laster bukatuko da. Ez etsi, horrelako ustekabeetatik asko ikasi daiteke eta.

Meta
(Irailak 17-Urriak 16)
Zure koltxoia aldatzeko momentua heldua da, eta badakizu. Ez izan alferra, zure bizkarrak eskertuko dizu!

Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)
Amorrua eta haserrea kudeatzen ikasi behar duzu. Yoga edota pilates bezalako kirolek asko lagundu diezazukete.

Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)
Zure betiko musikaz neka-neka eginda zaude, baina ez diezu abesti berriei aukerarik ematen. Eta gomendioren bat eskatzen badiezu lagunei?

Euskararen baratzea... ezagutuz aldatzea! Joseba Santxo

Agur, Ansoneko!

Dagoeneko hiru atal eskaini dizkiogu euskal *Sanson* harrigarri honi. Gehiago ere eman geniezaioke, baina ez da komeni atal hau monopolizatzea, gai interesgarri asko baitaude euskal kulturaren unibertsoan. Hori bai, gaztelaniaz apenas zekien euskaldun honen amaiera ez dugu kontatu barik utziko. Ezta hurrik eman ere!

Ansonekoak hazitarako zekorrak zituen baserrian. Euretariko handi bezain suhar bat, kana bitik gora luze zena, sagarrondo bati amarratuta zegoen. Halako batean, zezenak arbola apurtu zuen soka tirakaden porasuz, eta artez joan zen belarra ebakitzen lasai-lasai ziharduen Ansonekoarengana. Honek eutsi egin zion animaliatzarraren abordadari bere gorputz gihartsua albait indartsuen trinkotuz, eta ondoren, esku eskoiaz ezker adarrari oratuta eta besteaz lepogainetik helduta, lurrera bota zuen *Minotauro* hura esfortzu titanikoa eginez.

Egitada hartan, baina, gure *Herkules* handia herniatuta lotu zen. Hura ez zenez izan urduliztarraren akabuko balentria, hernia okerragotu egin zen, harik eta gure kolosoa 1856ko abuztuaren 24an Urdulizko Ansone baserrian bertan hil zen arte, 44 urte zituela (Altzoko Handia 43rekin joan zitzaigun, biriketako tuberkulosiak jota).

Kontatuak kontatu, eta ondinokarren pertsonaia bihurtutako pertsona honen abenturen egarri lotu bazarete, jakizue Jose Arriagak bildu zituela haren ibilerak (nik hortixek tiratu dut gehienbat) 1931n *Ansonekoa* izenarekin argitaratu zuen liburuxkan, 1972an *La gran enciclopedia vasca*-k *Ansonekoa, el forzudo vasco* izenburupean berrargitaratu zuena. Argitalpen biak Jose Arrue margolari ospetsuaren irudi ederrez apainduta daude (behekoa barne).

Aipatu Jose Arriaga hori (Durango, 1872-Madril, 1857), Juan Crisostomo Arriaga musikari entzutetsuaren iloba-birbiloba zena, Algortatik abiatu zen lagun batekin udako arrastegi eder batean, eta paseoan abiatu ziren txaka-txaka, harik eta Urdulizko Santa Marina haitzak begiztatu arte. Urdulizera iritsita, bat-bateko ekaitz gogor batek baserri batean babestera derrigortu zituen. Baserria zein izango eta... Ansone baserria, Juan Bautista Artaza Iraolaga hezur-haragizko mitoarena. Haren andre Manuela Iturriaga alargunaren ahotik irten ziren HIRUKAko orriotan irakurri dituzuen pasadizo zurgarriak. Beiondeizula, Manuela! ◂



Berba azoka

Ezta hurrik eman ere!
Pentsatu ere ez!

Hazitarako
Hazia lortzeko, semental.

Zekor
Txahala, bereziki arra. Hemen, zezena.

Suhar
Bizi-bizia, kartsua, sutsua.

Kana
Luzera neurria, metroa baino apur bat laburragoa.

Porazuz
Poderioz.

Abordada
Erasoa, oldarra.

Eskoi
Eskuin, eskuma.

Balentria
Ausardia edo adore handiko ekintza.

Koloso
Estatua erraldoia.

Iloba-birbiloba
Lehengusu edo lehengusina baten bilobaren semea edo alaba.

Txaka-txaka
Astiro-astiro, pauso txikiak emanez.

Arrastegi
Arratsaldea, arrastia, arratsa.

Zurgarri
Harrigarria, txundigarria.

Beiondeizula
Ondo joan dakizula.

Zuen ekarpena ongarri zaigu: euskararenbaratzea@gmail.com

Ur-kirolak Goazen Sup Race

Paddle sup egokituaren kirol-ekitaldi solidarioa egin dute itsasadarrean

Zortzigarrenez, irailaren 30ean, Plentziako itsasadarreko urak elkartasunez bete zituen Goazen Up osasun eta ongizaterako elkarteak. Egun horretan, hainbat lekutatik etorritako baldintza guztietako kirolariek parte hartu zuten Goazen Up Race kirol-ekitaldi solidarioan. «Azpimarragarria da elkarteko 45 boluntario egon ginela lanean; izan ere, mugikortasun urria duten 36 pertsonak parte hartu zuten, eta paddle taula gainean dagoen aulki berezietan jartzeko laguntza behar izan genuen; gainera, askorentzat taula gainean jartzen ziren lehen aldia zen», azaldu du Aketza Sanchez Goazen Up elkarteko sortzaileak. Halaber, Sanchezek probaren erantzun «polita» nabarmendu du, «proba herrikoian baldintza guztietako 200 pertsona inguru egon ginen, eta giroa ederra izan zen». ◂

Pilota Pala- eta eskupilota-txapelketak

Frontoiko lehiaketak martxan daude Leioan

Leioako udaletxeko arkupeko frontoian Atxiki Pilota Elkarteak antolatzen duen aterpeko buruz buruko eskupilota-txapelketaz gain, lehen aldiz, buruz buruko emakumezkoen pala-txapelketa ere ari dira jokatzen egunotan. Oraindino ligaxka fasean daude, baina abenduko lehen aste-akabuan lehiaketa bakoitzeko finalak jokatzeko asmoa dute, batera.

Elene Uribe da emakumezkoen pala-txapelketako antolatzaileetako bat eta, kontatu duenez, «ikusi genuen Atxikik eskualdeko gazte asko batzen zituela, eta emakumeok palara jokatzeko gunerik ez genuenez, txapelketa bat antolatzea bururatu zitzaigun». Pandemiaren ostean, binakako txapelketakaz hasi zirela gogoratu du palista leioaztarrak eta, ekimen hari eusteko helburuagaz, aurten buruz buruko emakumeen lehen pala-txapelketa antolatzea erabaki dutela gaineratu du.

Aldiz, Eneko Uribe pilotari leioaztarra eskupilota-txapelketako antolatzaileetako bat da. Atxiki Pilota Elkarteko kidea ere bada, eta ekipo ofiziala izan beharrean, «lagun talde bat» diren arren, hainbat urte daramatzate Leioan txapelketak antolatzen, tartean, aterpeko buruz buruko lehiaketetan. Aurten, 60 jokalari inguru batu dituztela kontatu du.

«Momentuz ez daukagu Atxikikoek daukaten sare handi hori, 18 emakume gabiltza lehiaketan, baina hazten joatea espero dugu», azaldu palista leioaztarrak. ◂

Alain Arteagabeitia Kickboxing inklusiboko borrokalaria

«Ezin dut nire bizitza ulertu boxeorik gabe»

Alain Arteagabeitia kickboxing inklusiboan lehiatzen den borrokalaria da. Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten 2011n eta, egun, gurpildun aulkian aurre egiten die gizarteak jarritako oztopoei.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

Gorlizko Uribe Kosta Fight Academyn entrenatzen du Arteagabeitiak. IKER TORRE NAVARRO

Nola aldatu da zure bizitza esklerosi anizkoitza diagnostikatu zizutenetik? Guztiz. Bizitza berri batera moldatu behar zara eta, horretarako, egokitzapena funtsezkoa izan da. Gainera, gurpildun aulkiagaz, ibiltzeari uzten diozu eta ezin dituzu beste hamaika gauza egin: zure seme-alabakaz futbolean aritu, hondartzara oinez joan edota igerilekuan igeri egin. Horregatik, egokitu eta gauzak aldatu behar dituzu.

Noiz hasi zinen boxeoan? Duela hiru urte. Izan nuen azken linfomatik berreskuratzen nengoenean, astean ordu erdiko pilates klaseetara joaten hasi nintzen. Aitzitik, niri betidanik gustatu zaidana boxeoa da eta, azkenean, Alberto Romillo irakasleagaz probatzea erabaki nuen. Astean behin entrenatzen hasi ginen eta, gaur egun, ez dakit nola gelditu. Neke fisikoaren aurka borrokatu behar dut, baina nigatik izango balitz egun osoan zehar entrenatuko nukeen. Egun, ezin dut nire bizitza ulertu boxeorik gabe.

Ama, txo! elkartea

«Desgaitasunen bat duten pertsonei kirola egiten laguntzeko sortu nuen. Hala, nik aurkitu ditudan oztopo batzuk eraisten saiatzen gara. Adibidez, gimnasioetara ezin gara gurpildun aulkian sartu edota dutxatu. Beste errealitate eta behar mota batzuk daudela erakutsi gura dugu»

Entrenatzeaz gainera, lehiatu ere egiten zara. Bai. Nire entrenatzaileagaz boxeoa egiten hasi ginen eta, ondoren, kickboxing inklusiboan lehiatzen hasi nintzen. Kategoria existitzen bazen ere, inork ez zuen izena eman gurpildun aulkian, beraz, aitzindariak garela esan daiteke. Espainiako Estatuko bi txapelketatan aritu gara, eta beste hainbat lehiaketatan ere. Hurrengo hitzordua urriaren 14an dugu; Madrilen izango den lehiaketa batera goaz.

Zure egunerokoan zer oztopo aurkitu duzu gurpildun aulkian? Adibidez, garraio publikoan, autobusek arrapala bat dute, baina elektrikoak direnez, egun askotan ez dute funtzionatzen. Niri askotan gertatu zait bertan geratzea eta nire bidaia ezin egitea. Bestalde, ez duzu kafe bat hartzen gustuko duzun lekuan, ahal duzun tokian baizik. Bainugela eta ate irisgarria duten lekuetan, zehazki. ◀

ALGORTAKO DENDAK GURE KALEETAN

AMETS
BEREZI
BHU GETXO
GIMNASIO CURVES ALGORTA
HER
ILESTIMAKEUP
IRATI
KANTXA KIROL MODA
LA TRASTIENDA DE KUKUMIKU
LINDAU TEJIDOS
MABE
MERCERÍA-LENCERÍA MAITE
NEXT
OSO
PELUQUERÍA ITZIAR OLABARRIA

ALGORTAKO AZOKA MERCADO DE ALGORTA
ANA LARA DANTZA ESKOLA
BATZOKI TABERNA ALGORTA
MAHIKO PELUQUERÍA
MI MUNDO DE AZÚCAR
RIFFMUSIC GETXO

Algortako Dendak
Getxo bizi ezazu
Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:

AURREKO SOLUZIOAK

S	N	B	U	C	P
E	A	I	X	S	O
S	J	G	A	I	K
U	P	R	U	R	B
A	I	O	R	A	E
A	O	U	A	T	A

K	U	N	B	I	A
I	A	I	R	O	S
T	R	I	Z	U	K
U	P	I	K	A	L
A	N	T	I	N	E
A	S	T	A	O	A

Hitz ezkutuak

Zer diote gure neska-mutilek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta joan laukiz lauki geziek agintzen dizuten moduan. Abiapuntua, bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxoa duzu. Jakin ezazu trikuari deitzeko moduaz ari direla biak.





Sudokua

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitza behin agertu behar dela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Nahas-mahas

Ene, baina zenbat modu ditugu TRIKUA esateko? Alboko orrialdean bi modu dituzu, eta hemen hirugarren bat. Eraman hizki bakoitza bere geziak agintzen dizun tokira eta hitz hori zein den asmatuko duzu.

Bilatu Gure trikuari barraskiloak, bareak, intsektuak, harrak, txoritxoen arrautzak, zizak, fruitu gorriak eta meloiak gustatzen zaizkio. Bilatu eta margotu. Bide batez, elementu bat falta da. Zein?

Engainagarriak

Ba al dakizu zenbat triku hiltzen diren errepidea pasa nahian, kotxeak harrapatuta? Guk ere ez dakigu zehatz-mehatz zenbat diren, baina asko eta asko direla ziur da. Gaixoak. Ondoko zortzi irudi-zatitxoen artetik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez datoz bat irudi nagusiagaz. Bereiz itzazu.

Zelan bizi izan duzu aurtengo uda?

IÑAKI HAYO
GETXO

Uda honetan Kantabriara joan naiz nire seme txikiagaz batera mendiaz eta hondartzaz gozatzera. Getxon ere gelditu naiz lan egin behar nuelako, eta turista askoren presentzia igarri dut, batez ere alemaniarrak eta holandarrak. Uribe Kostako hondartzetan ikusi ditut gehienbat, eta kruzeroen eragina dela uste dut.

FERN HALES
INGALATERRA

Ingalaterrakoa izan arren, orain Sopelan bizi naiz. Uda honetan Eskandinaviatik ibili naiz furgonetagaz, eta Sopelatik ere geratu naiz. Hondartzara joan naiz, baita mendira ere. Ingalaterragaz alderatuta tenperatura oso altuak egon dira hemen, baina, orokorrean, ondo eraman dut beroa.

ELISA CURTADA
KATALUNIA

Uda honetan ez naiz inora joan lanean egon naizelako. Uztailetik aurrera turisten presentzia handiagoa nabaritu dut, baina beste urteakaz alderatuta gutxiago egon direla uste dut. Konfinamendu osteko hurrengo bi udetan askoz turista gehiago sumatu nituen, esaterako.

ANALIA OJEDA
PARAGUAI

Uda Algortan igaro dut. Ez dut plan handirik egin: asteburuetan lagunakaz elkartu naiz eta paseo asko eman ditut. Hala ere, oso gustura egon naiz. Gogoan dut udako aste batean nahiko gaizki pasatu nuela beroagatik, baina bestela lasai egon naiz. Paraguain ez dituzu gauzak egiteko hainbeste aukera.

GOTZON AGIRRE
LARRABASTERRA

Udan herrian gelditu naiz oposizioak ikasten. Gehienez ondoko herrietara mugitu naiz planen bat egitera, baina, orokorrean, ez dut ezer egin. Ikasi eta ikasi egon naiz. Bilbo aldean turismoaren gorakada handia sumatu dut, baina Uribe Kostan ez hainbeste. Batez ere hondartzetara datoz turistak.

JON MAGRA
ALGORTA

Ahal dudanean oporretan joaten saiatzen naiz, asko gustatzen baitzait bidaiatzea eta laster Jordaniara joango naiz. Tamalez, geroz eta garestiagoa da atzerrira joatea, ez dugu lehen bezala egiten. Hala ere, hemen geratzea ere ez zaitu ardura, asko gustatzen zait Bakiora joatea, nire lekurik gogokoena da.

INGE BENGOA
ALGORTA

Gustatzen zaigu bidaiatzea, baina uda honetan ez dut aukerarik izan, Bartzelonatik hona bueltatu gara eta ez dugu astirik izan inora joateko. Bestela umeekin kanpinera joatea gustatzen zaigu. Adibidez, iaz, Tarragonan dagoen batean oso ondo pasatu genuen umeekin jolasten eta hori dena.

MIKEL MARTINEZ DE TRESPUENTES
ALGORTA

Normalean jaietan argazkiak ateratzeko beti geratzen naiz hemen. Gure inguruan beti baitago egiteko zerbait: jaiak, mendira joan, hondartzara... Bidaiatzea gustatzen zait, baina nahiago dut uda hemen pasatu, gainera lanagatik aukera izan dut asko bidaiatzeko.

URRIAK 6 OCTUBRE
Auditorium // 20:30 // 10 €

LAVINIA
Kabia Teatroa (Euskadi)

URRIAK 20 OCTUBRE
Auditorium // 20:30 // 10 €

IAN SIEGAL
(Reino Unido)

URRIAK 22 OCTUBRE
Auditorium // 18:00 // 6 €

EHUNZANGO BATEN IPUINAK: BATZUK ZEHARREZ DOAZ, BESTEAK ALDREBES
Pasadas las 4 (Nafarroa)

Leioa KULTURA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

Mikel Losada Aktorea

«Aita izan naiz, ez daukat denbora askorik erokeriak egiteko»

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** • ARGAZKIA: **MIKEL LOSADA** ▶

Defini ezazu zeure burua berba bitan. Beti gazte.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera? Zientzia-fikziozkoetan; asko gustatzen jata generoa.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat? Ermuko lagunekin Egoarbitza mendian.

Ohitura txarren bat? Asko; erretzea, adibidez.

Eta aitor dezakezun bizio bat? Bete arte jan.

Zein da zure ametsetako bat? Jupiter gertutik ikustea

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera? Nere familia eta tabakoa.

Gorroto duzun topikoa? Aktoreon lana txorakeria bat dela; hau da, esfortzurik gabe egiten den lana dela.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago? Australia. Sekulakoak dira hango fauna eta parajeak.

Zein berri gura zenuke irakurri biharko egunkarian? Minbizia pilula batekin osatzen dela.

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena? Aita izan naiz, beraz, ez daukat denbora askorik erokeriak egiteko.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Barrikako hondartza. Leku zoragarria da; libre sentitzen naiz beti.

Parrandarik politenak, non? Ermuan gazteagoa nintzenean –edo gaztea nintzenean, esan dot lehen beti gazte bat naizela, kar kar–, eta orain Bilboko jaietan.

Eguna ala gaua? Denborarekin aldatu egin da. Orain, eguna; lagunekin hizketan aritzea gustatzen jata. ◀

Laburrean. **Mikel Losada Garcia aktorea (Ermua, 1978) zineman, antzerkian eta telebistan nabarmendu da. 100 ikus-entzunezko-proiektu baino gehiagotan parte hartu du, baita beste horrenbeste antzerki-ekoizpenetan ere. Hiru aldiz izendatu dute Euskal Aktore Onenaren Sarirako, azken aldiz 2022an, *Ane* pelikulagatik, eta 2001ean irabazi zuen Telebistako Aktore Onenaren Saria. Horrez gainera, 2021ean, Urregin Saria jaso zuen. Parte hartu duen pelikulen artean, honako film hauek nabarmentzen dira: *Ane* (2020), *Modelo 77* (2022), *La higuera de los bastardos* (2017), *El guardián invisible* (2016) eta *La pequeña Suiza* (2019). Telesailei dagokienez, besteak beste, *El silencio* (2023), *Intimidad* (2022), *Ciudad K* (2010) eta *Cuéntame cómo pasó* topa daitezke; taulen gainean, berriz, *El viaje a ninguna parte*, *Tempestad* eta *Mcbeth* bezalako lanetan nabarmendu da. Gainera, Bilboko Pabellon 6 proiektuaren sortzaileetako bat da.**

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa
eMcumeak antzezlana

Azaroaren 26n, domekan, Itxaso Payaren eta Maria Riveroren satira musikal honen estreinaldiaz gozatu Getxoko Muxikebarri Antzokian. Saioa 19:30ean hasiko da, eta sarrera bikoitzak ditugu zure zain!

Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 29a (domeka) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zozketa
Renata piano jotzailea liburua

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 8 urtetik gorako umeentzako liburu eder hau zozkatuko dugu gure irakurle guztien artean. Irakurri gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 29a (domeka) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zozketa
Ustekabea etxaldean liburua



Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 8 urtetik gorako umeentzako abentura-liburu eder hau dugu zozkatzeko. Zuretzat izatea gura baduzu, badakizu zer egin... Ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 29a (domekaz) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: https://hiruka.eus/bazkidetu/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Nafar hegoaldeko
uzta euskarari puzka

errigora

Eskatu saskia!

10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9

Balioaren %25 Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara bideratuko da.

aek · ikastolenelkartea · Sortzen · agerraldia

errigora.eus